

Geografia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



**Unibertsitatera
Sartzeko Ebaluazioa**

UPV/EHU

2017



GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

1. Ariketa praktikoa: 4 puntu.

Mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.

2. Gai bat garatzea: 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea: 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0tik 0,5era kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

1. Prueba práctica: 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

2. Desarrollo de un tema: 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

3. Definición de conceptos geográficos: 2 puntos.

Cada concepto debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



A AUKERA

1. Espainiako mapa politikoa (autonomia-erkidegoen eta probintzien kokapena). (4 puntu).



Iturria: **Instituto Geografiko Nazionala (IGN).**


2. Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektore nagusiak. (4 puntu).
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
 - Arro hidrografikoa (0,5 puntu)
 - Nekazaritza intentsiboa (0,5 puntu)
 - Biztanleriaren dentsitatea (0,5 puntu)
 - Mugimendu pendularrak (0,5 puntu)

GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

B AUKERA

1. Klimogramaren eta dagokion landaretzaren iruzkina. (4 puntu).



Iturria: Meteorologiako Estatu Agentzia (AEMET).

2 Espainiaren barnealdeko nekazaritza-abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak. (4 puntu).

3 Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):

- Tolestura-mendikatea (0,5 puntu)
- Hiri-hierarkia (0,5 puntu)
- Tertziarizazioa (0,5 puntu)
- Europar Batasuna (0,5 puntu).



GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

8.– Ea Euskadiko eta Espainiako antolamendu politiko eta administratiboaren oinarritzko elementuak deskribatzen dituen, autonomia-erkidegoetan eta haietako batzuen barruan aberastasunaren

Ebaluazio irizpideak, 127/2016 Dekretua

Autonomia-Erkidegoen arteko mugatze zuzena eta baita probintzia bakoitzeko lokalizazio zuzena ere balioetsiko dira.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

– Enumera las características de la industria española y sus diferencias regionales.

Estándares de aprendizaje evaluable, Orden ECD/1941/2016

Hurrengo alderdien tratamendua balioetsiko da:

Industria hiru sektoretan oso espezializatuta: metalurgia eta produktu metalikoen ekoizpena, erauzte-industria eta petrolioaren, energiaren eta uraren industriak; eta makineria eta ekipo mekanikoa.

Jarduera helduak, lehiakortasunaren oinarri moduan prezio txikia eta herrialde merkeagoen lehia dutenak, eta ekipo-ondasunetan oinarritzen direnak; maila teknologiko eta eskari ertainarekin.



Industria-politikaren bidez ekoizpena dibertsifikatu nahi da, sektore tradizionalak berrituz lidergo-kokapenean jartzeko eta sektore berritzaileetan eta etorkizuneko sektoreetan enpresa berrien sorrera bultzatuz.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Arro hidrografikoa: ibai batek eta bere ibaiadarrek drainaturiko lurraldea

Nekazaritza intentsiboa: produkzio tresnak (eskulana, makinaria, ongarriak, etab.) era intentsiboan erabiliz lur zati bati ustiapen handiena ateratzen saiatzen den nekazale-produkzio sistema.

Biztanleriaren dentsitatea: biztanleak eta okupatzen duten lurrazal geografikoaren artean dagoen erlazioa. Km²-ko biztanle kopuruan adierazten da.

Mugimendu pendularrak: aldizkakotasun jakineko populazioaren joan-etorritzko desplazamendua. Normalean, bizilekua eta lantokiaren arteko eguneroko desplazamenduak

B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

– Comenta climogramas específicos de cada clima.

Estándares de aprendizaje evaluable, Orden ECD/1941/2016

Hurrengo alderdien tratamendua balioetsiko da:

- Termiko eta prezipitazio-erregimenen urte-sasoiko deskribapena lehorraldiak eta eurialdiak, hotzaldiak eta beroaldiak eta urte-sasoiko aldeak nabarmenduz. Aipatutako ezaugarrietatik behatoki honen klima eta bere klima-barietateari dagokion kokapena (herri-gaindiko mailan) zehaztu eta ondorioztatu. Adierazi dagokion landaretza potentziala.

Klima ozeanikoa. Prezipitazioak ugariak, erregularrak eta leunak (urteko kopurua > 800 mm). Eurien banaketa nahiko erregularra, fronte polarreko borraskek etengabe jarduten dutelarik. Prezipitazio gehien neguan, borraska hoiien maiztasuna handiagoa delako, eta udan minimo erlatibo bat, Azoreetako antizikloiaren eraginez. Bitarte termiko txikia kostan itsasoaren eraginari ezker (9 °C eta 12 °C tartean). Uda freskoa (batez besteko tenperatura hilabete batean ere ez da 22 °C-koa edo handiagoa). Negua moderatua (hilabete hotzeneko batez besteko tenperatura 6 °C



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

eta 10 °C bitartekoa da). Behatokia: Igeldo (Donostia/San Sebastian). Baso hosto erorkorra, zakardia eta belardia.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

– Identifica las actividades agropecuarias y forestales.

Estándares de aprendizaje evaluable, Orden ECD/1941/2016

Hurrengo alderdien tratamendua balioetsiko da:

Kokapena: Bi goi-lautadak eta Ebroren sakonunea

Nekazaritza-egituraren ezaugarriak: biztanleria urria eta zaharkitua. Populatze pilatua herri txikietan bata bestetik hurbil, Duero eta Ebro haranetan; eta herri handietan eta bata bestetik urrunduak penintsularen hegoaldean. Ustategien tamainak anitzak. Minifundioa Duero haranean (gutxitua emigrazioaren eta lursailak bateratzearen eraginez) eta Ebroko lur ureztatueta; Jabetza handiak Gaztela, Aragoi eta Extremadurako lehorreko lur askotan.

Lehorreko lurretan nekazaritza estentsiboa egiten da landa zabaleta “hirukote mediterranea” izeneko nagusi dela: zerealak, mahatsondoa eta olibondoa. Gaur egun gariaren orde garagarra landatu da; eta lugorri osoaren orde lugorri erdia (ekilorea atsedean labore moduan) esarri da edo desagertu egin da ongari kimikoak erabiltzeari ezker. Zerealak Gaztela eta León-en dira nagusi, eta Gaztela-Mantxa, Aragoi eta Extremaduran olibondoak eta mahastiak dira nagusi, Azken hau Errioxan eta Nafarroan nagusi.

Ureztaketari esker, nekazaritza intentsiboagoa da eta ekoizpena dibersifikatu egiten da: industria-landareak (azukre-erremolatxa lupulua eta tabakoa); bazkak aberaeak likatzeko, (alpapa eta artoa ad.); eta frutak eta barazkiak, kontserba-industria aipagarriren oinarria Ebroko haranean.

Abeltzaintza garrantzitsua lur lehorretan eta angioetan. Gaztela eta Ebroko sakonuneko lur lehorretan ardi-azienda nagusi. Esnetarako behi-azienda (lur ureztatueta ekoitzeko bazakak aprobeztatuz) eta txeri-azienda handiagotu dira. Angioetan larreak eta fruituak elikatzen dute ardi eta txerri taldeak, eta bigarren mailan, behiak. Baina gaur egun erabilera-aldaketak sartu dira besteak beste ehiza eta nekazaritza lur hoberenetan

Baso-ustiapena inguru batzutan da nagusi, hala nola Soriako Tierra Pinariega izenekoan.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.



Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Tolestura-mendikatea: aro sekundarioan eta tertziarioan itsas arroetako material-sedimentuak alpetar orogenesiaren ondoren tolesterakoan sorturiko mendiak.

Hiri-hierarkia: Lurralde bateko gizakokaguneen sailkapena maila desberdin eta menpekotan.

Tertziarizazioa: jarduera ekonomikoaren barnean zerbitzu-sektore edo hirugarren sektorearen hazkunde nabarmena dakarren eraldaketa ekonomiko eta soziala; hirugarren sektorea, hala, lanpostu gehien sortzen dituen eta BPGari (barne-produktu gordinari) gehien ematen dion sektorea izatera pasatzen da.

Europar Batasuna: Europako Ekonomia Erkidegoaren oinordekoa den 1993an ezarritako komunitate ekonomiko eta politikoa. 28 estatu europarrek integratuta dago. Bere organo erabakitzaile nagusiak Parlamentua, EBaren Ministro-kontseilua eta Komisioa dira.

2017